

# Gure Antxieta

**Xabier Riezu**

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

**A**pirilaren 2an, Frantzisko aita santuak Jose Antxieta kanonizazio dekretua sinatu du. Brasilgo apostolu kontsideratua, Jose Antxieta Tenerifeko San Cristobal de la Lagunagan jaio zen, 1534an, baina eskual jatorrikoa zen. Haren aita Joan Antxieta Zelaiaran, Antxieta abizena daramaten beste asko bezala, Azpeitiko Urrestilla auzokoa zen. Carlos V.aren eskribaua zelarik, Joan Antxieta Kanariar uharteetara joan behar izan zuen epaiketa batean notario lanak egitera. Han Mencia de Clavijorekin maitemindu, ezkondu, eta Tenerifan bizitzen geratu zen.

Bada beste anekdota bat Jose Antxieta Euskal Herriarekin lotzen duena. Bere azken eskutitzeko batean, Brasilgo Jesusen Lagundiko probintzial izandako pertsonen jatorria zehazterakoa, bere burua *vizcaino* moduan identifikatu zuen. Berari galdetu beharko genioke zergatik idatzi zuen euskalduna zela Tenerifan jaioa izan arren eta 44 urtez Brasilen bizi izan arren; baina Juan Plazaola maisuak esaten duen bezala, nahiko arrazoi bada hori, gu orain pertsonaia erraldoi honengana jakin-minez eta estimaz inguratuko (*Los Anchieta*, 1997).

Antxieta iruzki duen zer edo zer irakurtzen duenak euskal jatorri hori baino arrazoi ederragoak aurkituko ditu, ordea, hura estimatzeko. Bere bizitza ezagutzeko, beste jesuita askoren kasuan bezala, abentura harrigarri bateri kontaktuzon batean murgiltzea da. Egia da garai hartako ebanjelizazioa ulertzeko modu zurrunaren isla dela Antxieta. Baina, aldi berean, jendea kristautzeko modu aproposena, tokiko kultura maitatu eta bertara egokitzea dela sinetsi zutenen adibide ere bada; eta fedeak bultzatutako auzardiaz eta kemenez, ebanjelizazioa ahulenen defentsarekin uztartu zutenena. Jesuita horiekin miresmenez bakarrik irakur daitezke Pedro Fernandes Sardinha Brasilgo lehenengo gotzainaren gaitzespen hitz gogorak: jesuitak indigenei aitorza itzultzaileen laguntzaz ematen zitelako, haur indigenek kantuan katixima doinu paganoekin uztartzen zutelako, misiolariak indigenekin dantzan egiten zutelako, edo indigenak biluzik egoten zirelako haiei entzuten.

19 urterekin nobiziotza amaituta, Antxieta Ameriketara joan zen. Han indigenen batera bizi izan zen, aldi berean jesuita eta

indigenen bizileku eta haurrentzako eskola ziren etxoletan. Iritzi eta berehala Antxieta jesuita gazteak tupi hizkuntza ikasi zuen, eta, hizkuntzarekin batera, baita hango indigenen kulturen beste hainbat ezaugarri ere: botanika, teknika sendagarriak, artisautza... Berarekin egon zen lurralde haietan jesuita euskaldun bat ere, Antxieta-entzera ibili zena: Juan Azpilikueta nafarra. Horrek tupi hizkuntza hain ondo menperatzen zuen, lekukoei haren ama hizkuntza euskarari egotzi zioten erraztasun hori: «*Porque o tupi se assemelhava ao seu vasço natal*».

Antxieta tupi hizkuntzaren lehen gramatika eta hiztegia idatzi zituen, eta berea da Ameriketako hizkuntza indigena batera itzulitako lehen katixima. Idatzitak utzi zituen tupi hizkuntzan hainbat olerki eta antzezlan ere. Bere antzerkigintzaren unibertsaltasuna goraiatu zuen orain dela urte batzuk Eugenio Arozek, Antxieta-entzera heriotzaren laugarren mendeurrenean Azpeitiko Udalak argitaratutako liburuan (*Aita Jose Antxieta dohatsua*, 1997). Horregatik guztiagatik, Brasilgo Letren Akademiak eta Brasilgo Historia eta Geografia Institutuak herri hartako kulturako izen handitza dute.

Hango hizkuntza eta kulturari ekarpen horiek egiteaz gain, bakegintzan ere aritu zen Antxieta buru-belarri. 1563an tamoio indigenekin bakea lortzeko espedizio bati ekin zion. Indiar lurretan sartu zen, Caoquiera izeneko tamoioarren buruzagi nagusia bizi zen lekura. Bakea lortzeko ahaleginek porrot egin zuten, eta Antxieta bost hilabete igaro zituen indigenen eskuetan preso, baina hainbat buruzagi indigenen begirunea lortu zuen. Tamoio indigenekin bizitako pasadizoak *De Beato Virgine Dei Matre Maria* olerkian bildu zituen, tradizioak dienez hondartzako hondarrean idatzi eta ondoren buruz ikasi behar izan zuena. Asakatua berreskuratuta, hango gerra odoltsuan bi aldeetako zaurituak artatzen aritu zen.

Brasil esklaboentzako iturri nagusia zen garai hartan, eta horrek aurrez aurre jarri zituen kolonoak eta jesuitak. Antxieta indigena eta mestizoen eskubideen defendatzaile bihurtu zen, eta haiek

**Bakea lortzeko ahaleginek porrot egin zuten, eta Antxieta bost hilabete igaro zituen indigenen eskuetan preso**

ehizatu eta esklabo saltzearen kontra predikatu zuen. Antxieta-entzera ikuspegi humanista argi azaltzen da bere sermoietan: «Gauzak duten balioan estima ditzagun, eta ez diezaiozun, beraz, indioari dirua kostatu zaidan memelo eta basati moduan begiratu, baizik eta beragan ikusiaz Kristo gure Jaunaren irudia, zeina esklabo egin zen esklabo hau salbatzeko, eta ni neu ere, deabruaren esklabo nintzena, salbatzeko». Beste batzuetan, bere ahotsak tonu bortitz eta profetikoak hartzen du. 1574ko predikubatean, adibidez, Antxieta jakituzen esklaboak ehizatuko beste espedizio bat prestatzen ari zirela, eta honako hauek jaurti zituen: «Jaunaren etxeko txakur bat naiz ni. Eta ez diot zaunka egiteari utzi. Esaten dizuet, Jaiaren partetik, ez ditzazuela porrutik ontzi horiek atera, gurekin bakean bizi diren eta gure adiskideak diren indioak ohi duzuen moduan harrapatzeko». Azkenean Bahiako agintariak zaidan esklabo bihurtzea debekatu zuten. Garaipen garrantzitsua izan zen jesuita eta esklaboentzat.

Horretaz guztiaz gain, aipa genezake Antxieta Sao Paolo hiriko fundatzaileetako bat izan zela ere, jesuiten nagusi zelarik lurralde zabal hartan barrena batekin bestera bidaiatu zuela oinutsik erromesen moduan; han eta hemen eskolak sortu zituela, eta Paraguaiako erredukzio jesuita entzutsuen hazia ipini zuela indigena guaraniekin lan egingo zuten lehenengo jesuitak hara bidali. Antxieta-entzera bost edo sei filmetarako osagaiak ematen ditu gutxienez. Hizkuntza eta kultura, bakegintza eta giza eskubideen defentsa azpimarratu nahi izan dituzten hema, Antxieta kanariarra «geuru» bihurtzeko arrazoi ederrak iruditzen baitzaizkigu, bere jatorri *vizcaino* aparte utzita ere —Plazaola miretsiaren baimenarekin—.

Hori gutxi balitz, indigenen testigantzen arabera hainbat mirari egiteko gauza zen Antxieta: otoitzean lurretik gora hegan igotzen ikusi omen zuten, gaixotasun larriak aise sendatzen omen zituen eta basapiztiak lasaitu, lehoiabarrek bere oinetan musu ematen zioten eta txoriak elkartu egiten ziren zeruan lainoak osatuz bera eguzkitik babesteko.

1597an, Antxieta hilzorian zegoenean, indigenek prozesio handi bat antolatuta zuten, eta Antxieta haiek kantuan ohetik entzun ahal izan zituen. Ekainaren 9an hil zen, eta ondoren bere gorpua hirira zeramatenean, indigenek ateratzen ziren bide bazterretara erreferatu eta kantuan hari azken arguzko eskaintzera. A ze filma ari den Hollywood alferrik galtzen!

## Bat bitan

Danel Agirre  
Kazetaria



# Trinitatearen azken erpina

**U**naik azaldu zidan hiri berri batera luzarorako aldatutako anahalik eta lasterren ezinbesteko binomioa topatzea komeni dela: ile apaintzailea, batetik, eta arrasto eta pilula fidagarriak pasako dizkizun gamelua, bestetik. Dezentze bidaiatutakoa da mutila, orrazkera dotoreekin ikusi izan dut beti, eta, aurreko iruzkin deigarriak egiaztatzen duenez, jakituria erein, gorde eta zabaldu egiten du. Erreparoa eragiten dit horregatik Unairen teoria landu hori zuzentzeak, baina metodo zientifikoak aurrera egingo badu, behar-beharrezkoa da. Izan ere, nire ustez bada pare sakratu hori trinitate zerutiar bihurtzen duen beste osagai bat: etxeko egongelak bezain goxo hartuko zaituen taberna zuloa.

Etxebizitza berriaren bila ari gabela ingurumarian dauden ostatuak bertatik bertara ezagutzeari askoz garrantzitsuagoa derizot eraikinak igogailua edo trasteleku ote daukan egiaztatzeari baino. Zurezko zoria, leiho zabalak, edabe goxoak, eserleku erosoak eta tabernari adiskidetsua uztartzen dituzten oasien inguruan hedatzen dira auzo bakoitzeko urrezko metroak.

Benetako paradisuaren sukurtsal diren txoko horiek labana suitzarrek baino erabilia gehiago dituzte. Bazkalondoko kafetxorako —ostiraletan eskoziarra!— ezin aproposagoak dira, batetik. Tarte motel horietan, begi batekin nobelaren hogeitortzi orrialde irakur ditzakegu besaulkian bapo eserita, eta beste begiarekin kaletik pasatzen diren neska gazteak zelatatu. Lanegun neketsu baten —algararik ez, familia— ondorengo deskompresiorako ere ez dugu tresna hobirik aurkituko. Barran trankil berdindutako ardotxo da elixir eraginkorra horrelakoetan. Azkenik, afaletzeko tertulia mamitsuenak, Unairekin berarekin, adibidez, hantxe izan ohi dira, telebistatik batere gabe ausart jarraitzen duten lokaletan batez ere.

Hiru hilabete baino ez dira azken mudantza burutu nuela, eta loteria tokatu zaidan sentipenarekin bizi naiz. Estefak guraizeak maisuki astintzen ditu, trinitatearen bigarren erpinari buruz ez dut adierazpenik egingo, eta atarian bi taberna zulo zoragarri dauzkat. Laidak Berndek gobernatzen du, eskola zaharrari leial: Zwickl garagardo harrigarriaren bila datozen eliztarrekin tragoak eta zigarrak partekatzen ditu, eta pertsiana berak altxatu eta jaisten du, egunero. Cafe Ole-n, Sezer gormutu maitagarriak bere *espresso* bortitzak eta azenario tarta zoragarriak zeinu hizkuntzan nola eskatu behar dizkiogun erakusten digu, ahotsa eduki bai baina horrelako tratua taxuz eskertzen ez dugunoi.

Atea gurutzatzen dudanean biek egitekoari utzita nigana hurbildu eta esku ematen didaten bakoitzean, azaroko lehen hozkirriekin aitak tximinia piztu eta bertan egindako oilasko hegok familia giroan afaltzen dituguneko gorputzaldi berbera jartzen zait.



«Merezi du aldi baterako formula edo alternatiba bat bilatzeko ahalegina egitea, Eibar Bigarren B mailara jaitea saihesteko»

IKERNE BADIOLA  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol diputatua

**GIPUZKOAKO HITZA** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —tarreak barne— baino luzeago izan behar, eta mozteko eskubidea du komunikabideak. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Gipuzkoako Hitza, Martin Ugaldel kultur parkea; 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: [gipuzkoa@hitza.net](mailto:gipuzkoa@hitza.net).

## 1.400

■ **Zero Zabor tailerretan parte hartu duten ikasleak.**

Gipuzkoako ikastetxeetan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, 1.400 ikasle aritu dira Zero Zabor tailerretan. «Kopuru esanguratsua da, eta Gipuzkoako gizartearen konpromisoaren adierazlea», adierazi du aste honetan Iñaki Errazkin Ingurumen eta Lurralde Antolaketa diputatuak.